

www.unescoetxea.org

2021

Txostena

NIEVES FERNANDEZ LEHENDAKARIA



Arantza Acha, UNESCO Etxeko zuzendariaren hitzaldia Nazio Batuen eta UNESCOren 75. urteurreneko ekitaldian. Madril, 2021eko urriak 25

Bazkide horiek,

Sarrera hau 2021eko martxoaren 8an idatzi dut, eta gizartearen eraldaketa, emakume begirada batetik lortzeko espirituak gidatzen ditu nire hitzak UNESCO etxea gure elkarteko lehendakaritzatik.

Munduko herriok bat egin genuen 1945ean Nazio Batuak eratzeko, eta gizon eta emakumeentzako eskubide berdinen oinarritzko printzipioa jaso genuen Fundazio Gutunean, munduari aldarrikatuz genero-berdintasuna giza eskubideen eta haien balioen erdigunean bertan dagoela.

Printzipio hori berresten dugu Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean, 2000. urtean, giza eskubideen funtsezko zutabea azpimarratuz: DIGNITATE BERDINA.

Gizarte zibil antolatu gisa egiten dugun lanaren bidez, jarrera indibidualak eta kolektiboak sortu nahi ditugu, eta euskal gizarteak giza eskubideen balioak bere egin ditzan lagundu nahi dugu, herrien garapen iraunkorraren erronka globalaren partaide izanik. Horrek bultzatu gaitu kolektibo, eskualde, herri, pentsamendu eta genero desberdinen DIGNITATE BERDINAREN alde lan egitera.

2021 honetan, beste urrats bat egin dugu gizartea jasangarritasunerantz eraldatzea bultzatuko duten formulak eskaintzeko, proiektu propio berritzaile eraginkorrak garatuz, eta aliantza berriak ezarri garapenean eragina duten eremu guztietan: kultura, zientzia, teknologia, kirola, enpresa, administrazio publikoa, artea, hezkuntza.

Hori lortzen ari gara elkarte horren ikuspegia lortzeko ilusioa duten pertsona guztien ahaleginari esker, bai lankideei, bai bazkideei.

Lortutako aurrerapenetatik, une honetan aztertzen ari garen gerra-krisi izugarriarekiko kezka partekatua, Covid 19aren munduko pandemiaren ondorio suntsitzaileak gainditu gabe, eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 2000. urtean emakume baketsuei eta segurtasunari buruzko 1.325 Ebazpenean zabalduetako mezutik, zeinak azpimarratzen baitzuen funtsezkoa dela emakumeek bete-betean esku hartzea KOBID 19aren prebentziora eta bakearen sustapenera bideratutako ekimen guztietan; genero-maila handiagoko esku-hartze horri heltzeko eskatu behar dugu.

Gure zeregina handia da, baina gure konfiantza gehiago nahi dugun horretan.

Aurrera!

Edizioa: 2022ko martxoak

Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala.
Tfna: 94 427 64 32
info@unescoetxea.org – www.unescoetxea.org

un
UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA




NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 152 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXEKO ORGANIGRAMA



Gainera:
- 9 Boluntario egoitzan.
- BBK Fundazioarekin 2 bekadun en UNESCOren Pariseko egoitzan.



Bazkideen urteko batzarra 2021

EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

EGINKIZUNA

Nazio Batuen eta UNESCOren printzipioekin konprometitutako pertsona eta erakundeen elkarte bat gara, euskal gizarteak giza eskubideen balioak bere gain har ditzan lagunduko duten jarrera individual eta kolektiboak sortzeko, herrien garapen iraunkorraren erronka globalaren partaide bihurtuz.

IKUSPEGIA

Nazio Batuen Erakundearen eta, bereziki, UNESCOren programa eta balioen erreferentea izatea euskal eremuan, bereziki Nazio Batuen 2030 Agendaren erreferentea, tokiko eta nazioarteko eragileen arteko lankidetzak sustatuz, hezkuntzaren, zientziaren eta kulturaren ikuspegitik, bai eta giza eskubideen sustapena ere.

BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara:

- Zintzotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharrei dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haien hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondonen jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektio publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

SARE ETA ALIANTZAK

Sareko lana eta aliantzak funtsezkoak dira gure misioa gauzatzeko, bai tokian bertan, bai nazioartean. Horregatik, sare hauek bultzatzen ditugu:



GUZTIOK BATERA



GizARTE – Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarea



EHUS – Euskal Herriko UNESCO Sarea

UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOrekin Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- Nazio Batuen Komunikazio Globala Saileko kidea.
- UNESCOren eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren Helburuei buruzko Kanpaina.
- UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).

Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Federazioa (FECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group.
- Together 2030.
- Local Governments for Sustainability (ICLEI).
- European Sustainable Cities Platform.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Bakerako Ikerketaren Espainiako Elkarte (AIPAZ).
- Futuro en común (Talde eragileak. Bake sektorea).
- Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sarea (REDS-SDSN).
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarten Federazioa.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- GUZTIOK BATERA taldea: Munduko landagunea, Emakumenak Aniztasunean, Gehitu, Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte (AMUGE), Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK), UNICEF Euskal Herriko Batzordea, Amesten, Oscarte ONGD, Bidaya elkarte, Koop FS 34.
- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea.
- Eskubidez - Giza Eskubideetan Hezitze eta Bakearen aldeko Elkarten Foroa.
- BBK Kuna.
- BBK Behatokia.
- Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako 2030 Aliantza.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba. UNESCO MaB Programa.
- Universitat Oberta de Catalunya (UOC).
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Sareen Sarea.
- Arizmandiarrieta Kristua Fundazioa.
- Eusko Ikaskuntza.
- Emakunde.
- ARTgia.
- Bilbao Metropoli 30.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria. Hiri Sortzaileen Sarea.
- Novia Salcedo Fundazioa.
- Mujeres con voz elkarte.
- Naizen.
- Zumaiena.
- Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina

BEKAK

BBK-UNESCO Bekak

BBK Fundazioak eta UNESCO Etxeak bi nazioartekotze-beka eskaintzen dituzte urtero, lan-esperientzia bat emateko UNESCOren egoitza nagusian Parisen. Beken 8. edizioari esker, bi pertsona aritu dira lanean sei hilabetez Parisen, UNESCOren egoitza nagusian, bata Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza sailan eta bestea Hizkuntza Indigenen 2022-2032 Nazioarteko Hamarkadako Ekintza Globaleko Planeko taldean.

Prestakuntza-bekak Urdaibain

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren laguntzarekin 'Urdaibai beken' 5. edizioari esker, Biosferaren Erreserbari lotutako bi gaztek zazpi hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte.



BBK – UNESCO nazioartekotze Beken 7 promozioetako bekadunekin 1. Topaketa. Bilbo, 2022ko urtarillak 28

PROGRAMAK. Jarduera nabarmenak

Informazio gehiago



2030 AGENDA



Guztiok Batera jardunaldi birtuala. Akta Grafikoa.
Online. 2021eko maiatzak 25.

TODAS JUNTAS | GUZTIOK BATERA proiektuaren barruan, 'Hurbilketa bat 2030 Agendatik EAEko kolektibo kaltetuetara' izeneko txostena landu dugu. Txostenak ikerketa kualitatibo, teoriko eta praktikoa planteatzen du, berariazko bost azterlanen bidez: LGBT+ komunitatea, emakume ijitoak, emakume migratuak, gazteria eta jornalariak. Txostena 'Euskadiko talde kaltetuen errealitatea 2030 Agendatik' izeneko jardunaldian aurkeztu zen. Horrekin batera beste 3 ekitaldi antolatu ditugu: 'Eragile anitzeko I. jardunaldi birtuala' Euskadin eskubideak urratuta dituzten taldeak subjektu politiko aktibo gisa identifikatzeko, ezagutzeko eta indartzeko; 'Giza eskubideak errealitate bihurtzea GJHen bitartez eta alderantziz, COVID-19aren osteko berreraikuntzan' izeneko jardunaldi; eta '2030 Agendatik EAEko kolektibo kaltetuetara egindako hurbilketa' izeneko ekitaldia. Berau parte izan zen Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoen agenda ofizialean, alegia, 2030 Agendaren jarraipena egiteko eta nazioartean horren inguruko kontuak emateko espaziorik garrantzitsuenen.

'Pertsonak: denak berdinak, denak desberdinak' izenburupean unitate didaktikoa prestatu dugu, Lehen Hezkuntzako 3. zikloari bideratuta; unitateak eskubideen, inklusioaren, aniztasunen eta desberdintasunen murrizketaren gaiak lantzen ditu 2030 Agendaren esparruan. Halaber, euskaratu egin ditugu Nazio Batuetako Emakumeen Talde Nagusiaren 'NBEaren GJHak eta giza eskubideen mekanismoak ikuspegi feminista batetik' izeneko infografikak.

Prestakuntzari dagokionez, Anesvad erakundearekin batera, 10 ikastaro espezializatu baino gehiago eman ditugu, online eta aurrez aurre; besteak beste, '2030 Agenda: sektore anitzeko ikuspegia eta ekintzarako proposamenak' eta 'GKEek 2030 Agendaren ingurumen-jasangarritasuneko helburuei egiten dieten ekarpena'. Horrez gain, 2030 Agenda bertartzeko ikastaroak eman dizkiegu ikasleei EHUko Gradu Amaierako Lanetarako, eta prestakuntza-saioak ere eman ditugu EHUko Garapen Jasangarriari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedraren Ingurumen, Jasangarritasun eta GJHri buruzko berezko masterretarako.

'Gure Mundua Eraldatzeko 17 Helburu' izeneko erakusketa modu birtualean atera dugu, herritarak Giza Eskubideei eta 2030 Agendari buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko. Gainera, proiektu honen esparruan, bi unitate didaktiko landu dira Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa ikasleentzat (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), gazteen artean garapen jasangarriko hezkuntza sustatzeko eta 2030 Agenda lortzeko beharrezkoak diren ezagutzak lantzen laguntzeko.

2030 Agendari dagokionez, Bizkaia bizi duen egoerari buruzko 18 infografia egin ditugu BBK Behatokiarekin batera. Gure 7 buletin banatu ditugu '2030 Agenda'.

Era berean, GJHen aldeko tailerrak antolatu ditugu, eta hainbat ikastetxetako 700 irakasle eta ikasle baino gehiago hartu dute parte: besteak beste, Zumaiena Ikastetxea, Berri-Otxoa Ikastetxea, Calasanz Santurtzi, Itxaropena Ikastola, Zumarragako Fray Juan, Durango BHI, Badaia BHI eta Ballonti BHI. Gainera, igandero, iraila eta azarora bitartean, 2030 Agendaren berri eman dugu Bilboko Eripa kaian stand bat eta informazio-panelak jarrita, udalarekin eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin lankidetzan.

Hizlari izan gara 2030 Agendaren inguruko topaketetan; besteak beste, 'Foro Estratégico de Sociedad Civil - Futuro En Común', '2030 Agendarako erronkak eta indarguneak: hirugarren sektorearen, elkartearen eta gizarte-mugimenduen papera' izeneko udako ikastaroan, eta 'EDEBE-De otra manera' topaketan.

KULTURA



"Ekintzara jo: kultura 2030 Agendan" tailerra.
Donostia. 2021eko abenduak 14.

GIZARTE SAREA - Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarearen barruan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, ziberespazioan artista feministen metodologiak trukatu ditugu, Peruko 'Trenzar' Elkarte Artistiko Feministako Micaela Távora artistarekin, Peruko Alondra Flores artistarekin eta Euskal Herriko Irantzu Lekue sortzailearekin. Ekimen hori amaiera emateko, ikus-entzunezko bi pieza sortu ziren: 'Espectra' (Alondra Flores), Peruko feminizazioaren eta desagertutako emakumeen gaia jorratzen duena; eta 'Zama' (Irantzu Lekue), emakumeek pairatzen dituzten zama ikusezina lantzen dituen. 'Interkultura' ikusizun eszenikoarekin batera, 'Zama' Fair Saturday jaialdiaren eta TopARTE programaren parte izan zen Guggenheim Bilbao Museoaren 25. urteurrenean.

Artikertuz proiektuarekin eta Eva Mena artistarekin batera, horma-irudi parte-hartzaile bat sortzea buztatu dugu Donostiako EHUko Hezkuntza Fakultatean, hezkuntzari eta eskolari buruzko hausnarketa sortzaile eta kritikoa egiteko. Ekintza horiek Kmon Kultur Magazinekin dugun lankidetzara-espazioan egindako 3 elkarrizketatan jaso dira.

Hezkuntza, Arte eta Herritasunari buruzko VI. Mintegia antolatu dugu Aritaxen (Bilbo), "Ingurune digitaletan kultura sortzea eta eskuratzea" izenburupean. Aro digitaletan, gune publikoak ez dira gune fisikoetara estuki mugatzen; ziberespazioa ere barne hartzen dute. Nola berratu kultura-eskubideak linean?

'Herri Jasotzaileak' aurkeztu dugu Kultura Ministerioak Tabakalera (Donostia) antolatutako 'Kultura eta Herritasuna' izeneko VII. topaketan. UNESCO Etxearen eta Guerrilla Food Sound Systemen ekimen hori proiektuak erakusteko eta networking espaziorako aukeratu zen.

2030 AGENDAREN KULTURA DIMENTSIOR buruzko lan-ildoan, "Kultura iraunkorerrantz. 2030 Agenda kultura-sektorean integartzeko gida praktikoa" izenekoaren argitalpen-batordean parte hartu dugu, REDS sareak argitaratua, Sustainable Development Solutions Network (SDSN) erakundearen Espainiako antena. 'Kulturatik Garapen Jasangarriko Estrategian laguntzen' izeneko eragile anitzeko lantegian parte hartzen dugu, baita Kultura eta Kirol Ministerioaren Kultura Konferentzia Sektorialaren 2030 Agendari buruzko lantaldearen bileran ere. 'Ekintzara pasatu: kultura 2030 Agendan' izeneko lantegia eman genuen KBulegoak lagunduta. Halaber, hitzaldi bat eman genuen Kultura eta Kirol Ministerioak antolatutako 'Liburutegiak eta GJHak' mintegian.

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, **BIZKAIA ANIZTASUNEN ALDE** ekimena abiarazi dugu. Ekimenak balioa ematen die beren udalerrietatik eskubideen ikuspegi aniztasunen alde lan egiten duten pertsonari eta gizarte-erakundeari. Ivoox.com plataformako podcast batean 39 audio daude eskuragarri. Aniztasun funtzionala ikuspegi inklusibo batetik lantzeko gaizeentzako jardunaldi bat antolatu dugu, eta unitate didaktiko bat argitaratu dugu. Horren bitartez Europa Ikastetxean eta Aixerrota BHI (Getxo) tailerrak antolatu dira.

ONDARE UP! ekimenak kultura-ondarea eta -aniztasuna gazterari hurbiltzen dizkie, eta horren bidez 'Ondarea eta generoa. Emakumeak komunitatearen eraikuntzan duen rola' eta 'Ondarea eta komunikazioa. Nola komunikatu kultura-ondarea?' azterlanak koordinatu ditugu. Bizkaiko Ondareari buruzko Europako Jardunaldietan egon gara, ondare iragarri eta inklusiboari buruzkoetan, eta parte hartzen duten erakundeentzako eskuliburu idazten lagundu dugu. Gainera, 'Ondare Up! Ginkana' ekimenean, Gazteguneko gazteek disainatutako ibilbide alternatiboak gozatu genuen Uribarriko barrutian barrena.

HEZKUNTZA



2021/2022 GEM UNESCO Txostenaren aurkezpena.
Bilbo, 2021eko abenduak 15

2021ean, bakearen eta giza eskubideen kultura sustatzen jarraitu genuen, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueren bidez, eta UNESCOri Elkartutako Eskolen Munduko Sarea (PEA Sarea) bultzatuz. Sare horretako kide dira EAEko 9 ikastetxe. Esparru horretan, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzko Munduko Biltzarrean parte hartu genuen maiatzaren 17tik 19ra, PEA Sarearen ordezkari gisa.

UNESCO Etxea **4.7 FAKTORIA – GARAPEN JASANGARRIRAKO HEZKUNTZAKO PLATAFORMA IBEROAMERIKARRA** proiektua garatzen ari da, UNESCOk Iberoamerikako Garapen Jasangarrirako Hezkuntzan (GJH) duen estrategia globalaren zati gisa, Garapen Jasangarrirako Helburuen 4.7 helburuaren bidez 2030 Agendan aurrera egiteko helburuarekin.

4.7 Faktoriaren helburua da GJHa Iberoamerikan eraldatzea, berrikuntzaren eta ikaskuntza partekatuen bidez, eta horretarako, hezkuntzarekin lotura duten eragileek GJHa haien hezkuntza-politiken, -planen eta -praktiken ardatz inspiratzaile gisa har dezaten ahalbidetu nahi da.

Proiektuaren xedea da helburu hori lortzea da, honako hauen bidez:

- Lineako plataforma eleaniztuna garatuz, horretarako hezkuntza-baliabideak 2030 Agendarako eta GJHetarako antolatuz eta sailkatuz. (1. ardatza, ezagutzaren kudeaketa).
- Aliantzak sortuz, erakunde hezitzaileen gaitasunak eta eragina indartzeko eta 2030 Agendaren aurrerapena babesteko duen kontzientzia kritikoa sortzeko. (2. ardatza, aliantzak).
- Herritarren garapen jasangarriarekiko hausnarketa, konpromisoa eta ekintza sortuz, genero eta giza eskubideen ikuspegiarekin. (3. ardatza, komunikazioa).

2030 Agendak proposatzen duen ikuspegiari erantzuteko, 4.7 Faktorian hainbat gizarte-eragileekin lan egiten dugu. Horiek proiektuko prozesuen eta jardueren parte bihurtu, eta eragile horien arteko artikulazio egokia bilatzen dugu. Aipatutako eragileak dira, besteak beste: gobernua, parlamentuak, Nazio Batuen sistema eta nazioarteko beste erakunde batzuk, tokiko agintariak, herri indigenak, gizarte zibila, enpresak eta sektore pribatua, komunitate zientifikoa eta akademikoa eta biztanle guztiak.

Proiektuak, gaur gero, lau erakunde eragileren funtsezko laguntza du: UNESCO, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) eta Iberoamerikako Idazkaritza Nagusia (SEGIB). Halaber, beste 30 euskal erakundek parte hartzeko interesa adierazi dute.

Euskaraz argitaratu dugu 2021/2 Munduko Hezkuntzaren Jarraipenari buruzko Txostenaren laburpena (GEM UNESCO txostena). 'Estatuz kanpoko eragileak hezkuntzan' izenburupean, txostenak aztergai du 4. GJHa gauzatzeko ekintza-esparruak zein neurritan aitorzen duen estatukoak ez diren eragileen eginkizuna, hezkuntza-arloko munduko xedea lortzeko dagokionez. Txostena Laura Stipanovic Ortega aurkeztu zuen Bilbon, Txostenaren Taldeko Ikerketa eta Komunikazio Proiektuetako adituak.

INGURUMENA



#BiosferaNaiz kanpaina, Urdaibaiko Biosfera Erreserba.
2021eko urria - abendua

Nazio Batuetan aurrean lortutako mugari handienetako bat bultzatu duen munduko mugimenduan parte hartu dugu: Ingurumen **GARBIA, OSASUNTSUA ETA JASANGARRIA IZATEKO ESKUBIDEA AITORTZEA**. Aitortza horrek ingurumenaren degradazioa eta klima-aldaketa elkari lotutako giza eskubideen krisia dela onartzen du, eta pertsonak eta natura babesten dituzten estandar globalei forma eman liezaiekeen adierazpen politiko esanguratsua da.

Lan-ildo hori jarraituz, 2021ean krisi klimatikoaren eta giza eskubideen arteko loturei buruzko jarduerak garatzen jarraitu dugu, eta eskubideak urratuta dituzten hainbat taldeetan jarri dugu arreta. Horretarako, 'Krisi klimatikoa eta giza eskubideak' ikastaroa antolatu genuen linean, eta animaziozko bideo labur bat atera genuen; bertan jasotzen dira 2020an "Krisi klimatikoa giza eskubideen mehatzatzen ditu" izenburupean egin genuen ikerketa parte-hartzailearen aurkikuntza nagusiak. Ikerketa hori Eskura Zentroak 2021eko apirilean antolatutako Giza Eskubideetarako Baliabide Pedagogikoen III. Azokan aurkeztu zen.

UNESCOren MaB Programaren 50. urteurrena dela eta, **#BIOSFERANAIZ** kanpaina abiatu genuen Urdaibaiko Erreserbako Bulego Teknikoarekin eta Urdailife ekimenarekin batera. Deialdi baten, webgune baten eta sortutako bideo laburren bidez, Urdaibaiko garapen jasangarria bideratutako 22 tokiko ekimenen berri eman zuen. Ekimen horiek etorkizuneko Urdaibairekin konprometitutako pertsonen komunitatearen parte dira dagoeneko.

Horrekin batera, eta bosgarren urtez jarraian, 'Urdaibai bekak' eskaini genituen; horiei esker, Biosferaren Erreserbarekin lotura duten bi gaztek 8 hilabeteko prestakuntza-praktikak izan zituzten.

Komun-ontziaren Munduko Eguna dela eta, webinar bat antolatu genuen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin batera. Horretan, besteak beste, Pedro Arrojo izan genuen (gizakiek edateko ura eta saneamendua izateko eskubideei buruzko Nazio Batuetako errelatore berezia).

Asteklima - Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astearen barruan, "Gure mundua eraldatzeko 17 helburu" erakusketara aurkeztu genuen, "2030 - Baso Magikoa" proiektuaren gizarteratze ofizialean. Proiektua Zumaiaren garatutako natura- eta jasangarritasun-balioetan oinarritutako hezkuntza-proiektua da.

Jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko Dekretua aurkezteko jardunaldian parte hartu genuen, Euskadiko ingurumen-hezkuntzako beste eragile batzuekin batera. Bertan, garapen jasangarrirako eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza-arloan dugun esperientzia eta lana azaldu genituen.

UNESCO Etxeko zuzendari Arantza Achak bosgarren urtez jarraian izan da ICLEI (Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Europako Sarea) antolatutako Eraldaketa Ekintzaren Sariko epaimahaikide.

Aktiboki hartzen dugu parte Pobreziaren aurkako Borrokaren Ingurumen Jasangarritasunerako Sarean, eta Sare Berdeak ekimenarekin bat egiten dugu, ekintzara igaro nahi duten eta horrela beren ingurunea hobetzen lagundu nahi duten erakunde, enpresa, pertsona eta bestelakoek arteko aliantzak sortzeko ekimenarekin, hain zuzen ere.

2021eko ARGITALPENAK www.unescoetxea.org eta www.youtube.com/unescoetxeapv-en eskuragarriak

- Guztiok Batera txostena. Hurbilketa bat 2030 Agendatik Euskadiko talde kaltetuetara.
- VI. Mintegia. Hezkuntza, Arteak eta Herritarrak. Kultura sortzea eta eskuratzea ingurune digitalean.
- Patrimonio y género. El rol de la mujer en la construcción de comunidad.
- Patrimonio y comunicación. ¿Cómo comunicar el patrimonio cultural?.
- UNESCOren GEM Txostena. Estatukoak ez diren eragileak hezkuntzan.
- Unitate didaktikoa. Bizkaia Aniztasunen alde. Aniztasunen inklusioa ikasgelan.
- Unitate didaktikoa. Pertsonak: denak berdinarak, denak desberdinarak. LH5. eta 6. maila.
- Unitate didaktikoa. Gure Mundua Eraldatzeko 17 Helburu. Lehen mailako erronkak. 3. zikloa.
- Unitate didaktikoa. Gure Mundua Eraldatzeko 17 Helburu. Bigarren mailako erronkak. 2. zikloa.
- Erakusketak bertualak. Gure mundua eraldatzeko 17 helburu.

Jarduera horien **28 bideo**: [2030 Agenda eta Giza Eskubideak](#) | [Guztiok Batera](#) | [Klima krisia eta Giza Eskubideak](#) | [Eman minutu 1](#) Askatasunaren alde | [Interkultura](#) | [2. Zizarte jaialdia](#) | [Artibismo feminista](#) | [Komunaren munduko eguna](#)



EKITALDI NABARMENAK

1 NAZIO BATUEN 75. URTEURRENA

Urriaren 25ean Nazio Batuen eta UNESCOren 75. urteurrenaren ospakizunetan parte hartu genuen. Esparru horretan, Gizarte zibila, bakerako funtsezko zutabea 'izeneko lehen mailako jardunaldi bat egin zen, UNESCOrako Elkarte, Zentro eta Klubuen Espainiako Federazioak (FECU) antolatua, Cultura de Paz Fundazioarekin lankidetzan

Bertan izan ziren, besteak beste, gure ohorezko bazkidea Federico Mayor Zaragoza, Gabriela Ramos (UNESCOren zuzendari nagusiaren ondokoa) edo Enrique Santiago Romero (2030 Agendarako Estatu idazkaria).

2 EHUS- EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREAREN 7. TOPAKETA

Maiatzaren 14an, Euskal Herriko UNESCO Sarearen (EHUS) 7. topaketa egin zen Gordailua-Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroan, Irunen.

Topaketan 2021erako plana eta helburuak onartu ziren eta EHUS Magazine aldizkariaren bigarren edizioa aurkeztu zen. UNESCO eta COVID19aren ondorengo bizitza izenburupean, bisitatzen diren sareko espazioak egoera berrira egokitu izana nabarmetzen da.

Nieves Fernández, UNESCO Etxeko presidentea eta Mikel Mancisidor, Zientzia eta giza eskubideei buruzko behaketa orokorrerako Errelatoreak, errealitate berriari buruzko hausnarketa egitera gonbidatu zituzten EHUS sareko kide diren erakundeak eta 2030 Agendarekin eta giza eskubideekin duten konpromisoari buruz.

3 'EMAN MINUTU 1' LEHIAKETA

XII. edizioan, bideo-lehiaketak "eman minutu bat bizitzaren alde" izenburua izan du.

Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) defendatzen zituzten ikus-entzunezko piezak saritu ziren, mundu ekitatibo, justu, inklusibo, iraunkor eta planetarekiko errespetuzko baten eraikuntza bultzatuz; konpromiso pertsonala eta errebeldia faktore abiarazle eta bideratzaile gisa hartuta.

Aurtengo edizioan errekorra hautsi da, lehiaketara minutu bateko 104 bideo aurkeztu baitira Euskaditik, Valentzia, Asturias, Madril, Pontevedra, Badajoz, Zaragoza eta Venezuela eta Frantziatik.

Informazio gehiago: <https://dame1minutode.org>

4 'PIEZAS' DOKUMENTALAREN ESTRAINALDIA

Azaroaren 27an, Fair Saturday jaialdiaren egitarauaren barruan, Guggenheim Bilbao Museoko auditoriumean "Interkultura eta Zama" jardueraren antolatu genuen, Museoaren 25. urteurrenaren TopARTE programa barne hartu zuena.

"Zama"ko zuzendari Irantzu Lekuek eta "Interkultura"ko zuzendari Cruz Noguearak beren bideoak aurkeztu zituzten, eta ikusleekin partekatu zituzten bi lan horietan gainditzen dituen ideiak eta kontzeptua. Arteaz eta sorkuntzaz hitz egin zuten, gizartearen eraldatzeko tresna gisa.

Proiektzioen ondoren, aniztasunei eta kulturartekotasunari buruzko solasaldi aberasgarri eta gogoetsua izan zen.



DATU EKONOMIKOAK

GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak 'Gardentasuna' atalean www.unescoetxea.org web gunean daude.

2021eko Auditoriaren txostena



LES AUDITORES, S. L. P.
C/Alfonso de Arce, 101, 1º B. 28014 Madrid
T: 91 53 74 42
www.unescoetxea.org

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES ABRUEVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO.

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO de la Entidad, que comprenden el balance abreviado a 31 de diciembre de 2021, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2021, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestra responsabilidad de acuerdo con dichas normas se describe más adelante en la sección Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas de nuestro informe.

Somos independientes de la Entidad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que nos aplican a nuestra auditoría de las cuentas anuales de España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

LES AUDITORES, S. L. P. LKS

UNESCO ETXEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO

Informe de auditoría de cuentas anuales abreviadas emitido por un auditor independiente a 31 de diciembre de 2021

- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Consejo de Gobierno, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Entidad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestra conclusión se basa en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuras pueden ser la causa de que la Entidad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con el Consejo de Gobierno de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificada y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación al Consejo de Gobierno de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

LKS AUDITORES, S.L.P.
Inscrita en el R.O.A.C. N° 81054

AUDITORES
del Consejo de Gobierno

LES AUDITORES, S. L. P.

M^o Mercedes Pascual Maestre
Inscrita en el R.O.A.C. N° 18.942
16 de marzo de 2022

Sarrera pribatuen eta publikoen jatorra

SARRERAK GUZTIRA 2021


670.678,62€

Ekarpen pribatuak eta diru-sarrera propioak

158.697,51 € %23,66

Ekarpen publikoak

511.981,11 € %76,34




(*) Eusko Jaurjaritza:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia %32,12; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila %10,44; Hezkuntza Saila %5,36; Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza %3,23

Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2021

664.564,27€



Egoera-balantzea 2021

AKTIBOA

Aktibo ez-zirkulatzailea 41.108,04

Aktibo zirkulatzailea 410.728,54

Aktiboa guztira 451.836,58

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

Ondare garbia 404.179,46

Fondo propioak 67.866,46

Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak 336.312,68

Pasibo zirkulatzailea 77.296,53

Ondare garbia eta pasiboa guztira 451.836,58

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2021ean laguntza eman baitigute giza garapen iraunkorraren alde lanean jarraitzeko.

Instituzioari diruz laguntzen diote:

- Laboral Kutxa.

Egitasmoetan laguntzen dute:

- BBK Fundazioa.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.

Baliabideak uzten dituzte:

- Diario El Correo.
- Diario de Noticias de Gipuzkoa.
- Diario de Noticias de Álava.
- EITB.
- Kmon Kultur Magazine.